

Urriak 17, Pobreziaren kontrako nazioarteko eguna


Euskadiko gazteen % 8,4 benetako pobrezia-egoeran daude

Urriaren 17an **Pobreziaren kontrako nazioarteko eguna** ospatzen dela-eta, [Gazteen Euskal Behatokiak](#) Euskadin pobrezia-egoeran dauden gazteei buruzko datu batzuk azalduko ditu. Horretarako Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte politiketako sailak lau urtean behin burutzen duen [Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta](#) (PGDI) izeneko ikerketaren emaitzak aztertu ditu Gazteen Behatokiak.


Azken inkestari (2012koari, hain zuzen ere) erreparatuz gero, esan dezakegu Euskadiko Autonomia Erkidegoko 16 eta 29 urte bitarteko **gazteen % 8,4 benetako pobrezia-egoeran** daudela. Benetako pobrezia diogunean, esan nahi dugu aipatutako urtean gazte horiek bizi diren etxeguneetan ez dituztela ez diru-sarrera nahikorik ezta ondare nahikorik ere oinarrizko premiei (elikadura, etxebizitza, jantzi eta oinetako gastu ohikoei) aurre egiteko.

Pobrezia-egoeran dauden gazteen ehunekoa (edo, beste modu batean esanda, gazteen benetako pobrezia-tasa) handitu egin da azken urteotan eta 2012an 2004ko zifrak (% 4,1) bikoiztu egin dira.

Aurreko urteetan ez bezala, 2008tik hona gazteen benetako pobrezia-tasa 16 urtetik gorako biztanleria osoarena (% 5,3 2012an) baino handiagoa da.



Benetako pobrezia-tasa handiagoa da Bizkaiko gazteen artean, Euskadiko gainontzeko lurraldeetako gazteen artean baino.



Jarrai gaitzazu sare-sozialetan!

